



Arratsalde on, Euskal Herria!

Arrestiri hon, Atharratze eta Basabürüa!

1985eko maiatzaren 31n, hemen bertan, Atharratzen, 4. Korrika abiatu zen. Lehen kilometroa Jakes Agergaraik eraman zuen, langabetuen kolektiboaren izenean; ondotik, Solange Chimixek, Xiberoko ikastolen izenean. Eta horrela, 2080 kilometro egin eta gero, Iruñean bukatu zen.

Eta gaur, berriz ere, Basabürüan gara!

Bai, gaur Xiberoan besta-eguna da... .. baina aldarrikapen-eguna ere bai! Gaur, Atharratzetik Bilboraino eramanez gaituen ibilbideak badu zenbait parekotasun gure hizkuntzarekin: herri oso bat zeharkatzea, herri oso bat lotzea, eta herri oso bat bizirik sentiaraztea. Eta, kilometroz kilometro, «EUSKARA GARA» oihukatuko dugu.

Trufa badirudi ere, 24. KORRIKAREN atarian azpimarratu nahi dugu AEKk lehengo behar berberak dituela: euskararen aldeko kontzientzia piztea eta AEKren eguneroko lana indartzeko dirua biltzea.

Zoritxarrez, egungo marko administratiboek ez dute bermatzen Euskal Herri osoan euskaraz bizitzeko aukera, eta helduen euskalduntzea finantziario ezegonkor eta murriztaileen menpe dago.

Euskararen egoera larria da, eta jauzi politiko eta estruktural bat behar da, euskararen minorizazioa gainditzeko; ofizialtasun falta, oldarraldi judiziala eta instituzioen atzerapausoak euskararen garapena oztopatzen ari dira.

Horren aitzinean, helduen euskalduntzea ardatz nagusi bihurtu behar da, doakoa eta unibertsala izanik.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Euskararen Erakunde Publikoak 2024ko ekainean adierazi zuen moduan, «Iparraldean, 2050erako 40.000 euskaldun gehiago beharko lirateke, Ipar Euskal Herrian hiztun-kopurua % 30era iristeko».

Ea! AEKn, apustua onartzen dugu!

Baina, horretarako, **baldintzak beharko dira**: lidergo politikoa, hizkuntza-politika sendoa eta baliabide errealak.

Alabaina, Korrika ez da kilometroak egitea soilik, ez da lekukoa eskuetatik eskuetara pasatzea bakarrik: engaiamendua da, euskararen aldeko engaiamendua!

Eta 24. Korrikan, argi diogu: **EUSKARA GARA!!!!**

EUSKARA, gure identitatea. Euskara gara gu, eta gu gabe ez dago euskararik.

Horregatik gaude hemen, gaur eta beti, euskara defendatzeko, maitatzeko eta transmisioan segitzeko.

Iparraldetik Hegoaldera egingen dugun bide honek erakutsiko du euskarak ez duela mugarik.

Korrikaren erritmoan, ttipi-ttapa, herri bakoitza euskararen plaza bihurtzen da; pertsona bakoitza, hizkuntzaren zaindari tipi baina indartsu.

Eta argi esaten dugu: **hizkuntza hau ez da geldituko.**

Eramanen dugu aitzina, emanen diogu bizia: lanean, eskoletan, karrikan, sare sozialetan, lagunartean, musikan, ametsetan...

Eta Bilbon bukatzen denean, ez da azken kilometroa izanen, ezta azken oihua ere.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Korrika finitzen denean, berriz hasiko da: ikasgelan, ostatuetan, familia-bazkarietan, kantu berrietan.

EUSKARA GARA, eta ez da sekulan geldituko.

Orain kamioneten motorrak piztuak dira, laster 24. Korrika abiatuko da eta, aldi honetan, lehen kilometroan lekukoa eramaten duen elkartea: **EUSKAL IRRATIAK**, Ipar Euskal Herriko euskarazko irratia biltzen dituen sarea.

Iparraldean, gure etxe eta artegietan osoki euskaraz emititzen duten irratiei, milesker!

Milesker Gure Irratiari, Xiberoko Botzari, Irulegiko Irratiari, Amikuzeko Irratiari eta Antxeta irratia.

Bihotzetik milesker euskararen normalizazioan eramaten duzuen lanarengatik, kalitatezko informazioa eskainiz.

Azken Korrikan, Garazi ARRULAK zera idatzi zuen: «Esna dadila piztia, zeren kea usaindu duelako izanen da, eta guk badakigu sua egiten».

AEKn, badakigu sua egiten.

Beste behin, hamaika egunez piztuko da Korrikaren garra, eta **EGIN DEZAGUN SUA!!!**

Besarkada bat goitik begiratzen gaituzten gure AEKide guzietan!

Milesker handia lehen egunaren antolaketan parte hartu duzuen Basabürüko lagunei!!

EUSKARA GARA!!!

GORA 24. KORRIKA!!!!

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



GORA AEK!!!!

GORA EUSKARA!!!!

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behe
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA
Errekoleta 16, behe
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus